## REGULACIÓN DEL PROCEDIMIENTO PARA LA VALORACIÓN DE LA APTITUD LINGÜÍSTICA EN EUSKERA EN LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

**Aprobado por A 30/2004, de 25 de mayo y modificado por A 31/2009, de 7 de mayo.**

### Primero

El objeto del presente acuerdo es regular el procedimiento para la valoración y acreditación de la capacitación lingüística del profesorado, en aquellas plazas en las que se vaya a impartir docencia en euskera en la Universidad Pública de Navarra.

### Segundo

La acreditación de la capacidad lingüística se podrá efectuar por cualquiera de los siguientes modos:

1.- En el caso de nuevas contrataciones, a efectos de lo previsto en el artículo 18 e) del Reglamento de Contratación de Profesorado de la Universidad Pública de Navarra de 2009:

a) Estar en posesión del título EGA, título de la Escuela Oficial de Idiomas o cualquier otro reconocido legalmente como equivalente.

b) Excepcionalmente, acreditar, por medio del correspondiente certificado expedido por la institución interesada, experiencia en docencia en euskera de al menos un curso académico en enseñanzas universitarias o enseñanzas medias. Dicha acreditación será ponderada por una Comisión de Valoración creada al efecto.

c) En caso de que la competencia lingüística en euskera no pueda demostrarse documentalmente, y el aspirante solicite someterse a la acreditación de su nivel de conocimiento de euskera, la Comisión de Contratación requerirá la colaboración de la Comisión para la valoración del

## NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN EUSKARAZ IRAKASTEKO HIZKUNTZA GAITASUNARI BURUZKO ARAUKETA

**Maiatzaren 25eko 30/2004 Erabakiak onetsia eta maiatzaren 7ko 31/2009 Erabakiak aldatua.**

### Lehenengoa

Erabaki honen xedea da irakasleen hizkuntza gaitasuna balioetsi eta egiaztatzeko prozedura arautzea, Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskaraz irakatsiko diren lanpostuetan.

### Bigarrena

Hizkuntza gaitasuna modu hauetako baten bidez egiaztatu ahalko da:

1.- Kontratazio berriak badira, 2009ko Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakasleak Kontratatzeko Arautegiko 18 e) artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako:

a) EGA tituluaren, Hizkuntza Eskola Ofizialeko tituluaren edo legeek titulu baliokidearen balioa aitortutako beste edozein tituluren jabe izatea.

b) Salbuespen gisa, interesa duen erakundeak emandako ziurtagiriaren bidez, gutxienez ere ikasturte bateko esperientzia egiaztatzea euskarazko irakaskuntza ematen unibertsitateko ikasketetan edo irakaskuntza ertainetan. Berariaz sortutako Balioespen Batzorde batek aztertuko du ziurtagiri hori.

c) Ezinezkoa bada euskarazko hizkuntza gaitasuna agirien bidez frogatzea, eta izangaiak bere euskarazko ezagutza-maila egiaztatzea eskatzen badu, Kontratazio Batzordeak lankidetza eskatuko dio Euskararen Ezagutza Balioesteko Batzordeari, egoki jotzen duen probaren

Conocimiento del Euskera para que, a través de la prueba que considere idónea, acredite si el aspirante posee el nivel de conocimiento mínimo exigido para impartir docencia en euskera.

bidez, egiazta dezan izangaiak euskaraz irakasteko eskatutako gutxieneko ezagutza maila duen.

2.- En el caso de profesorado perteneciente a la Universidad Pública de Navarra:

Quienes, perteneciendo a la Universidad Pública de Navarra, carezcan del requisito establecido en el punto 1, apartados a) o b), deberán probar su capacitación mediante la superación de una prueba, oral y escrita, que la Comisión de Valoración preparará al efecto, cuyos contenidos generales se harán públicos.

2.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak badira:

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak badira, baina ez badute betetzen 1. puntuko a) eta b) idatz-zatietan ezarritako betekizuna, Balioespen Batzordeak berariaz prestatuko duen ahozko eta idatzizko proba bat gainditux frogatu beharko dute gaitasuna dutela. Probaren eduki orokorrak jendaurrean jarriko dira.

**Tercero**

1.- Se constituirá una Comisión para la Valoración del Conocimiento del Euskera, cuyo cometido será la acreditación de la capacitación lingüística de los aspirantes a impartir docencia en euskera. De esta forma, se garantizará la capacitación lingüística y en consecuencia, la calidad de la interacción profesor-alumno.

2.- Los miembros de la Comisión para la Valoración del Conocimiento del Euskera serán nombrados por el Rector, o por la Comisión de Planificación Lingüística por delegación del Rector, para un periodo de tres años.

3.- La Comisión para la Valoración del Conocimiento del Euskera estará presidida por el Rector o persona en quien delegue y estará constituida, además, por dos personas de acreditada competencia en euskera y el Director del Servicio de Planificación Lingüística, que actuará como secretario de la misma.

**Hirugarrena**

1.- Euskararen Ezagutza balioesteko Batzorde bat eratuko da, eta bere eginkizuna izango da euskaraz irakasteko izangaien hizkuntza gaitasuna egiaztatzea. Honela, hizkuntza gaitasuna bermatuko da, eta, hortaz, irakasle-ikasle elkarreragina.

2.- Errektoreak, edo berak eskuordetuta, Hizkuntza Plangintzarako Batzordeak, izendatuko dituzte Euskararen Ezagutza Balioesteko Batzordeko kideak hiru urterako.

3.- Errektorea edo berak eskuordetutakoa izango da Euskararen Ezagutza Balioesteko Batzordeko burua, eta, horretaz gainera, euskarazko gaitasun handia duten bi pertsonak eta Hizkuntza Plangintzarako Zerbitzuko zuzendariak osatuko dute. Hizkuntza Plangintzarako Zerbitzuko zuzendariak batzordeko idazkari-lanetan jardungo du.

**Cuarto**

Las calificaciones otorgadas por la Comisión de Valoración serán las de Apto o No Apto para la docencia en euskera en la Universidad Pública de Navarra, y así se hará constar en el certificado correspondiente, que se extenderá

**Laugarrena**

Balioespen Batzordeak emandako kalifikazioak, Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskaraz irakasteko Gai ala Ez gai aipamenarekin, behar den ziurtagirian jasoko dira, eta agiria interesdunari emango zaio.

al interesado.

**Quinto**

La Universidad Pública de Navarra podrá realizar periódicamente convocatorias específicas para la acreditación de la capacitación lingüística en euskera.

**Bosgarrena**

Nafarroako Unibertsitate Publikoak berariazko deialdiak egin ahalko ditu aldiro, euskarazko hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko.

**Sexto**

1.- Una vez acreditada su capacitación lingüística, quienes impartan docencia en euskera en la Universidad Pública de Navarra quedarán exentos de realizar nuevas acreditaciones.

2.- No obstante, quienes habiendo acreditado su capacitación lingüística no impartan docencia en euskera en la Universidad Pública de Navarra en un periodo de cinco años y deseen hacerlo, vendrán obligados a realizar una nueva acreditación en los términos aquí detallados.

**Seigarrena**

1.- Hizkuntza gaitasuna egiaztatu eta gero, Nafarroako Unibertsitatean irakaskuntza euskaraz ematen dutenek ez dute bestelako akreditaziorik lortu behar.

2.- Nolanahi ere, hizkuntza gaitasuna egiaztatu eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan irakaskuntza euskaraz bost urteko epean ematen ez dutenek, eta eman nahi dutenek, beste gaitasun-proba bat gainditu beharko dute, hemen zehazten den eran.

**Disposición Derogatoria**

Quedan derogadas cuantas normas que sobre esta materia hubieran sido dictadas con anterioridad a este acuerdo y, expresamente, el acuerdo de Junta de Gobierno A.70/98 de 12/6/98 de “Regulación del Procedimiento para la valoración de la aptitud lingüística para la docencia en vascuence en la Universidad Pública de Navarra”.

**Xedapen Indargabetzailea**

Indarrik gabe gelditu dira, arautegi honi dagokion gaiari buruz, aurretik emandako arau guztiak, eta Gobernu Batzordeak, 1998ko ekainaren 12an egindako bileran, hartutako 70/98 Erabakia, Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskaraz irakasteko hizkuntza gaitasuna balioesteko prozeduraren arauketari buruzkoa, berariaz.

**Disposición Final**

Las normas contenidas en el presente acuerdo serán de aplicación a partir del día siguiente a su aprobación por el Consejo de Gobierno.

**Azken Xedapena**

Erabaki honetako arauak aplikatuko dira Gobernu Kontseiluak onetsi eta hurrengo egunetik hasita.

EL PRESIDENTE
BATZORDEBURUA

Julio Lafuente López
Rector / Errektorea